

## AMETSEN BASOA

AMETSEN BASOA, halaxe zuen izena ipuinak. Eta zergatik zuen izena Ametsen Basoa? Bada, eskolako neska-mutikoek izen hura jarri ziotelako ipuinari: AMETSEN BASOA

Amets zoragarriak aurki omen zitezkeen AMETSEN BASOAN. Horretarako, hartuta urrezko aitzurra, aski zen orri ameslari bat ukitzea. Orduan, zuhaitzetako orri ameslari guztiak mugitzen omen ziren eta, mugitzearekin batera, itxuraldatzen ameslari, era miresgarrian: gorri-urdin, hori-beltz, berde-arrosa, lila-laranja, txuri-marroiska . . . Hala, zuhaitzen adarretara igo eta, erabat liluratuta, ametsetan hasten ziren neska-mutikoak, amets zoragarritz beteta:

Ametsen Basoan:  
ametsen orriak,  
ametsen orriak,  
zoragarriak!

Ametsak beharrezkoak direnez bizitzan, leku guztietatik joaten omen ziren neska-mutikoak. Hegazkinak berak ere, edota autoak, gertutik pasatuz gero, ez ziren aurrera joaten Ametsen Basoa bisitatu gabe. Hain zen ikusgarria basoa, hain miresgarria! Parekorik ez omen zegoen inguruan eta neska-mutikoak irrikan egoten ziren bertara joan eta amesten hasteko.

A zer ipuina asmatu zuten! Egiazkoa zirudien eta, hortaz, urte hartan bertan, gauza bat egin zuten eskolan: beste ipuin bat asmatu. Eta neska-mutikoek izen bera ipini zioten ipuinari: AMETSEN BASOA.

Ipuinean kontatzen zuten nola piztu zen sua Ametsen Basoan: botata zigarro bat, nahi gabe, auto batetik. Suhiltzaileak ahalegindu omen ziren agudo itzaltzen; halere, ezin izan zuten ezertxo ere egin. Ametsen Basoa erre egin zen eta, hortaz, neska-mutikoak geratu omen ziren Ametsen Basoa gabe. Hura nahigabea! Basoa hainbeste erre zen, hainbeste suntsitu ezen Ametsen Basoa bihurtu zen baso mortua, ametsik gabeko leku bakartia: ez orri ameslari, ez urrezko aitzur eta ez ezer. Hura hondamendia! Zutik geratu ziren zuhaitzek hezur beltz beldurgarri itxura hartu zuten eta inor ez zen ausartzen bertara joaten. Hain leku abandonatua bihurtu zen! Hain baso mortua!

Zorionez, eskolako andereñoa agertu zen.

—Zerbait egin beharko dut —esan omen zuen—. Neska-mutikoak ez ditut utziko ametsik gabe. Orri ameslariak aurkitu beharko ditut berriro.

Baso mortuan sartu eta egon zen adarretara begira ea aurkitzen ote zuen orri ameslariaren bat. Nola aurkitu ordea? Zuhaitzak erreta ageri ziren, adar bakanez beteta, hezur beltzak izango balira bezala. Eta areago barneratu zen baso errean barrena. Alferrik: erreta zegoen dena, dena mortu, dena ezdeus. Etzanda jarri eta, une batez, atsedean hartzen ari zela, zabaldu begiak eta esan omen zuen:

—Zerbait egin beharko dut. Neska-mutikoak utzi beharrean orri ameslaririk gabe, sortzea izango da onena.

Eta eskolara joatea pentsatu zuen.

Eskolara joan eta haur guztiei eskatu zien laguntza: Ametsen Basoa erre egin zela eta, amets egiten jarraitu nahi bazuten, orri ameslariak sortu beharko zituztela elkarrekin.

Haurrek begiratu zioten harrituta:

—Orri ameslariak sortu? Nola?

Andereñoak argi esan zien:

—Bada, eskoletako orri zuriak erabiliz.

Eta eskoletako orri zuriak erakutsi zizkien.

Haurrak, noski, ikusita andereñoaren orri zuriak harrituta geratu omen ziren, eta galdetu zioten:

—Eta zer egin behar dugu orri zuriak ameslari bihurtzeko?

Andereñoak irribarretsu erantzun zien:

—Zeuen ametsak idatzi, marraztu eta margotu, besterik ez. Orri zuriak, horrela, bihurtuko dira ameslari.

A zer ideia! Eta haurrek zer egin zuten orduan? Bada, orri zuriak hartu eta hasi omen ziren ametsak idazten, marrazten eta margotzen:

Perretxikoak zirela aterki baten tamainakoak

Eskolak eraikitzen zirela zuhaitzen adarretan

Pertsonak robotak zirela eta ibiltzen zirela animaliak bezala

Arrainek segundoro ematen ziotela musu urari

Autoak itsasoaren gainean ibiltzen zirela batere busti gabe

Aitona-amonek hegan egiten zutela txoriek bezala . . .

A zer ametsak! Ehunka amets, pila bat amets, haur hainbat amets, zein baino zein fantastikoa-go. Eta gauza bat egin zuten: orri ameslari guztiak hartu, lokarritz lotu eta zintzilikatu omen zituzten baso mortuan.

Geroztik, orri ameslarietako esker, baso mortuak jarraitzen du izaten Ametsen Basoa.

A zer ipuin fantastikoa! Eta hain liluratuta geratu ziren neska-mutikoak ipuinarekin ezen esan zioten andereñoari:

—Eta zergatik ez ditugu guk ere sortzen orri ameslariak?

Konforme! Denak conforme. Eskolako orri zuriak hartu eta aterata patiora, neska-mutikoak hasi omen ziren idazten, marrazten eta margotzen:

Zorriek haurren ileetan zituztela jolas-parkeak

Ama-aitak eskoletara joaten zirela ikasteko haurrak izaten

Egun guztiak zirela opor egunak

Motxilak airezkoak zirela eta ez zutela ezer pisatzen

Hegazkin batzuk zirela Moskitoak baino txikiagoak . . .

Orri ameslariak sortzeko, erabili omen zituzten era guztietako margoak: gorri-urdinak, hori-beltzak, berde-arrosak, lila-laranja, txuri-marroiskak . . . Eta hain liluragarriak izan ziren ametsak ezen egundoko erakusketa antolatu zuten eskolako Areto Nagusian. A zer nolako erakusketa!

Eta liburu bat ere egin omen zuten: AMETSEN BASOA izenekoa. Eta zergatik AMETSEN BASOA? Bada, orri guztiak zirelako ameslariak.

Geroztik, urtero sortzen dituzte orri ameslariak, eta urtero sortzen dute eskolan AMETSEN BASOA izena duen liburua, dena amets zoragarritz beteta:

Politikoek kontatu egiten dizkietela ipuinak haurrei

Gerrak desagertzen direla mundutik, dinosauroak desagertu ziren bezala

Arratoiak bizi direla lurpean, luxuzko etxeetan

Euliek lan egiten dutela kilimak egiten masajistak bezala . . .